EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN HEZKUNTZA-EREMURAKO PREBENTZIO-PROGRAMA BAT EGITEA ALKOHOLAREN ETA BESTE DROGA BATZUEN KONTSUMOA PREBENITZEKO XEDE DUEN ADMINISTRAZIO-KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA	**PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS DEL CONTRATO ADMINISTRATIVO QUE TIENE POR OBJETO LA REALIZACIÓN DE UN PROGRAMA DE PREVENCIÓN DEL CONSUMO DE ALCOHOL Y OTRAS DROGAS EN EL ÁMBITO EDUCATIVO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO**
1.- SARRERA	**1.- INTRODUCCION**
Euskadiko 2023 – 2027 Adikzioen VIII. Planaren helburu nagusietako bat da **nerabezaroan eta gaztaroan osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa indartzea.**	El VIII Plan de Adicciones de Euskadi 2023–2027, destaca como uno de sus principales objetivos, **reforzar la promoción de la salud y la prevención de adicciones en la adolescencia y juventud.**
Adikzioen prebentzioari ekiteko ahalegin gehienak nerabezaroan eta gaztaroan egiten diren droga-kontsumo esperimentaletan oinarritzen dira. Denbora-tarte horretan, pertsonak helduaroan sartzeko prestatzen ari dira, eta inguruko pertsonekin elkarreraginean ikasten dute, aurre egin behar dieten egoera eta erronka desberdinetara egokituz.	El **abordaje de la prevención de las adicciones centra gran parte de sus esfuerzos en los consumos experimentales de drogas que se realizan durante la adolescencia y la juventud**. Durante este periodo de tiempo, las personas se están preparando para incorporarse a la vida adulta y aprenden en interacción con las personas de su entorno y adaptándose a las distintas situaciones y retos que tienen que ir afrontando.
Gure gizartean **alkohola** oso errotuta dagoen droga da, eta horren **kontsumoak lotura estua du nerabezaro eta gaztaroarekin**, helduarorako bidean. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da prebentzio-proiektu bat garatzea gazteentzat, alkohol-kontsumoaren prebentzioan zentratuta, baina ez modu esklusiboan.	En nuestra sociedad el **alcohol** es una droga profundamente arraigada, cuyo **inicio de consumo está íntimamente relacionado con la adolescencia y la juventud**, en su tránsito hacia la vida adulta. Por esta razón, se considera necesario desarrollar un proyecto de prevención dirigido a este extracto de población joven y que se centre, aunque no de forma exclusiva, en la prevención del consumo de alcohol.
Prebentzio-proiektu horrek **baliabide didaktikoak emango dizkie irakasleei, alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoarekin lotutako arrisku-faktoreek duten eragina lantzeko**. Materialak alkoholak organismoan, garunaren garapenean eta pertsonen osasunean eragiten dituen ondorioak deskribatuko dituzte. Tresna horrek agerian utziko ditu kontsumoak gizartean dituen ondorioak, eta agerian utziko du eragin negatiboa duela pertsonen arteko harremanetan: berdinen artean, familiarekin, hezkuntzaren esparruan, eta abar. Horrela, ikasleak alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoarekin lotutako arriskuez	Mediante este programa se proporcionarán al **profesorado recursos didácticos que incidan en los factores de riesgo relacionados con el consumo de alcohol y de otras drogas. Materiales preventivos que describirán los efectos que produce el alcohol en el organismo, en el desarrollo del cerebro y en la salud de las personas**. Una herramienta que ponga de manifiesto los efectos sociales de su consumo y que evidencie su incidencia negativa en las relaciones interpersonales: entre el grupo de iguales, con la familia, en el ámbito educativo, etc. para que el alumnado tome conciencia de los riesgos y daños asociados al consumo del alcohol y otras drogas, y

eta kalteez jabetuko dira, eta behar besteko informazioa izango dute jokabide horrek sortzen dituen ondorioekiko jarrera arduratsua eta kontsekuentea izateko, beren kabuz, bizimodutzat eta gizartearen aldeko baliotzat har ditzaten.	disponga de información suficiente que le permita adoptar una postura responsable y consecuente con las consecuencias que esta conducta genera, de tal manera que puedan asumir como propios estilos de vida y valores prosociales.
2. KONTRATUAREN EZAUGARRIAK	**2.- ELEMENTOS DEL CONTRATO**
2.1- XEDEA	**2.1- OBJETO**
Kontratazio honen xedea da **EAEko ikastetxeetako DBHko 4. mailako, Batxilergoko, Erdi eta Goi Mailako Zikloetako, Oinarrizko Prestakuntzako eta HHEko ikasleei zuzendutako alkohol-kontsumoari lotutako arriskuak prebenitzeko eta murrizteko tailerrak egitea.**	El objeto de la presenta contratación es la **realización de talleres de prevención y reducción de riesgos asociados al consumo de alcohol dirigidos al alumnado de 4º curso de ESO, Bachillerato, Ciclos de Grado Medio y Superior, Formación Básica y EPA´s. de los Centros Educativos de la C.A.P.V.**
2.1.1- HELBURU OROKORRA	**2.1.1- OBJETIVO GENERAL**
• Arrisku-faktoreak murriztea eta **jarrera eta portaera arduratsuak sustatzea** alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoaren aurrean. • **Babes-faktoreak sustatzea** eta, bereziki, **alkohola eta beste droga batzuk kontsumitzen hasteko adina atzeratzea** eta horien **kontsumoaren prebalentzia murriztea.**	• **Reducir los factores de riesgo y fomentar actitudes y comportamientos responsables** ante el consumo de alcohol y otras drogas. • Promocionar los **factores de protección y especialmente retrasar la edad de inicio** del consumo de alcohol y otras drogas **y disminuir la prevalencia de su consumo.**
2.1.2- HELBURU ESPEZIFIKOAK	**2.1.2- OBJETIVOS ESPECÍFICOS**
• Alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoan **ondorio desatseginak agertzea eta kontrola galtzea errazten duten inguruabarrak ezagutzea.** • **Alkoholaren gehiegizko kontsumoa gertatzen denean ager daitezkeen ondorio negatiboak ezagutzea eta aztertzea**, horiek prebenitzeko edo murrizteko: istripuak, zehapenak, lesioak eta gatazkak. • **Autokontrolerako jarraibideak** sartu kontsumoan. • Ikastetxeetako **irakasleek** alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoarekin lotutako **arriskuei buruzko ezagutzak eskuratzea**, osasun-agente komunitario gisa jardun ahal izateko.	• **Reconocer las circunstancias que favorecen la aparición de efectos desagradables y pérdida de control** en el consumo de alcohol y otras drogas. • **Conocer y analizar las consecuencias negativas que pueden aparecer cuando se da un consumo abusivo** de alcohol para poder prevenirlas o reducirlas: accidentes, sanciones, lesiones y conflictos. • **Incorporar pautas de autocontrol** en el consumo. • Que el **profesorado** de los centros educativos **adquiera conocimientos sobre los riesgos** asociados al consumo de alcohol y otras drogas, para poder actuar como agentes de salud comunitarios.
2.2- JARDUN-EREMUA	**2.2- ÁMBITO DE ACTUACIÓN**

EAEko Adikzioen VIII. Planak ezartzen duen jarduera-eskemaren arabera, kontratatu beharreko zerbitzua **nerabezaroan eta gaztaroan osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa indartzen duen jarduera-ildoaren barruan kokatzen da**, eta adikzio-substantzien kontsumoa prebenitzeko programa espezifikoak bultzatzen ditu, hala nola alkoholaren kontsumoa, Euskadin hedatuen dagoen droga.	De acuerdo al esquema de actuación que establece el VIII Plan de Adicciones de la C.A.P.V., el servicio a contratar **se enmarca en la línea de actuación que refuerza la promoción de la salud y la prevención de adicciones en la adolescencia y juventud**, impulsando programas específicos de prevención del consumo de sustancias adictivas, como es el caso del consumo de alcohol, la droga más extendida en Euskadi.
Hezkuntza-eremuko prebentzio-programa bat da, eta **alkoholaren kontsumoa kaltegabea ez dela eta pertsonen garapenerako hainbat ondorio kaltegarri dituela transmititzean oinarritzen da**. Programa hori hezkuntza-komunitate osoari zuzenduta dago, eta **15 urtetik gorako ikasleentzat diseinatuta** dago, **kontsumo esperimentalak edo kontsumo intentsibo eta abusuzkoak dituztenentzat**. Tailerrak diseinatzean eta gauzatzean, **ikasleen beharrak, baldintzak eta egoera bereziak hartu beharko dira kontuan, eta lorpen gisa, programaren hartzaileek prebentziozko mezua barneratzea, sentsibilizatzea eta alkoholaren kontsumoarekiko jarrera aldatzea hartuko da kontuan, kaltegabea ez dela eta haien kontsumoa konpontzen zailak diren arriskuekin eta balizko kalteekin lotuta dagoela hautemanez.**	Se trata de un **programa de prevención en el ámbito escolar, cuyo enfoque y abordaje, se fundamenta en transmitir que el consumo de alcohol no es inocuo, que tiene múltiples consecuencias perjudiciales para el desarrollo de las personas**. Un programa, dirigido a la comunidad educativa en su conjunto y muy especialmente destinado y **diseñado para el alumnado de más de 15 años**, **con consumos experimentales o incluso con consumos intensivos y abusivos. En el diseño y ejecución de los talleres deberán tenerse en cuenta las necesidades, condiciones y situaciones particulares de alumnos y alumnas, y como logro se considerará que las personas destinatarias del programa interioricen el mensaje preventivo, se sensibilicen y cambien su actitud respecto del consumo de alcohol, percibiendo que no es inocuo y que su consumo está asociado a riesgos y posibles daños difíciles de reparar.**
Tailerrak Euskal Autonomia Erkidego osoko **DBHko 4. mailako ikasleen, Batxilergoen, LHIKen, Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloen eta HHEen artean** jarriko dira abian, baita maila horietako irakasleen artean ere.	Los talleres se pondrán en marcha entre el **alumnado de 4º de ESO, Bachilleratos, CIPs, Ciclos Formativos de Grado Medio y Superior y EPAs** de toda la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como entre el profesorado correspondiente a estos niveles.
2.3-ERAKUNDE ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK	**2.3-OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD ADJUDICATARIA**
Erakunde esleipendunak betebehar hauek izango ditu:	La **entidad adjudicataria estará obligada a**:
• **Gehienez 238 tailer eta gutxienez 190 egitea** EAEko ikastetxeetan 2026-2027 ikasturtean, honela banatuta: ➢ **Gehienez 93 eta gutxienez 76 tailer, kontratua izenpetzen denetik 2026ko abendura arte.**	• Realizar un **máximo de 238 talleres y un mínimo de 190** en los centros educativos de la C.A.P.V. en el curso escolar 2026-2027 con la siguiente distribución: ➢ **Máximo 93 talleres y mínimo de 76 desde la formalización del contrato a diciembre de 2026.**

➢ **Gehienez 145 eta gutxienez 114 tailer, 2027ko urtarriletik ekainera.**	➢ **Máximo 145 talleres y mínimo de 114, en el periodo de enero a junio de 2027.**
• **Tailerrek hiru orduko iraupena** izango dute, **ordu eta erdiko 2 saiotan** banatuta. 238 tailerretarako, beraz, 476 saio eta 714 prestakuntza-ordu egingo dira.	• Los talleres tendrán una **duración de tres horas, distribuidas en 2 sesiones de hora y media**. Para un total de 238 talleres, se realizarán, por tanto, 476 sesiones y 714 horas de formación.
• **Kontratua behar bezala gauzatzeko baldintza izango da tailerren % 20, gutxienez, oinarrizko prestakuntzan eta erdi-mailan egitea.** Esleipendunak jarraipen-txostenean eta azken txostenean justifikatu beharko du betetze hori.	• Será requisito de correcta ejecución del contrato que, **al menos, el 20% de los talleres se desarrollen en Formación Básica y Grado Medio.** La adjudicataria deberá justificar este cumplimiento en el informe de seguimiento y en el informe final.
• **Kontratuaren xedea betetzeko behar diren baliabide materialak ematea.** Gutxieneko materialak hauek izango dira: ➢ **4.400 unitate didaktiko**, ikasleentzako fitxak eta jarduerak jasotzen dituztenak. ➢ **238 eskuliburu** irakasleei laguntzeko, ikasgelan prestatzeko.	• **Proporcionar los medios materiales necesarios para el cumplimiento del objeto del contrato**. Los materiales mínimos serán: ➢ **4.400 unidades didácticas** que incluyan las fichas y actividades para el alumnado. ➢ **238 manuales de apoyo** al profesorado para la formación en el aula.
• Ikasleentzako **material didaktikoa eta** irakasleentzako **laguntza-eskuliburua Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egongo dira eskuragarri, euskaraz eta gaztelaniaz**. Esleipendunak bi hizkuntza-bertsioen kalitatea, baliokidetasuna eta eguneratzea ziurtatu beharko ditu.	• El **material didáctico** destinado al alumnado, **así como el manual de apoyo** dirigido al profesorado, deberán estar **disponibles en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, euskera y castellano.** La adjudicataria estará obligada a asegurar la calidad, equivalencia y actualización de ambas versiones lingüísticas.
• Enpresa lizitatzaileek aurkezten duten **lantaldea, gutxienez, hiru pertsonekin osatuko da.**	• El **equipo de trabajo** que presenten las empresas licitadoras estará formado**,** por **al menos, tres personas.**
• **Lantaldearen erdiak gutxienez**, eta, nolanahi ere, gutxienez bi pertsonak, **prestakuntza akademikoa izan beharko dute gizarte eta giza zientzietako diziplinetan, eta, gainera, adikzioak prebenitzeko prestakuntza osagarria, gutxienez 40 ordukoa**.	• Al menos la **mitad del equipo de trabajo**, y, en cualquier caso, nunca menos de dos personas, deberán **contar con formación académica en disciplinas de las ciencias sociales y humanas y, además, formación complementaria en prevención de adicciones, de al menos 40 horas.**
• **Lan-metodologia ikastetxeetan prestakuntza-tailerrak egitea** izango da, alkoholaren kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko eta kudeatzeko ikastaro baten bidez.	• La metodología del trabajo consistirá en la **realización de talleres de formación** en los centros educativos a través de un curso de reducción y gestión de riesgos asociados al consumo de alcohol.
• **Prestakuntza-zerbitzua euskaraz eta/edo gaztelaniaz eman beharko da**, **ikastetxe bakoitzak** adierazitako	• La **prestación del servicio formativo deberá realizarse en euskera y/o en castellano**, atendiendo a la **elección**

hizkuntza-hautua kontuan hartuta. **Erakunde esleipendunak beharrezko giza baliabideak izan beharko ditu ikastaroak eskatutako hizkuntzan emango direla ziurtatzeko.**	**lingüística expresada por cada centro educativo**. La **entidad adjudicataria** estará **obligada a disponer de los recursos humanos necesarios para asegurar la impartición de los cursos en la lengua requerida.**
• **Lantaldeak material didaktikoak emango dizkie ikasleei tailerrak ematen dituzten ikastetxeetan**. Programan parte hartzen duten ikastetxe bakoitzeko irakasleei laguntzeko eskuliburu bat ere emango du.	• El equipo de trabajo **entregará los materiales didácticos al alumnado** en los centros educativos en los que imparta los talleres. También entregará un **manual de apoyo al profesorado** en cada centro que participe en el programa.
• **Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari hiru hilean behin informazioa bidaltzea esku-hartzeen/tailerren bilakaerari buruz** (jardueren txostena, udalerri, ikastetxea eta ikasketa maila/zikloen araberako laguntza-txostena eta erabilitako material didaktikoak), eta programaren garapenean eragina izan dezakeen edozein gorabeheraren berri ematea berehala, kontratatutako erakundean lan egiten dutenen altak eta bajak barne. **Informazioa euskaraz eta gaztelaniaz emango da.**	• **Remitir a la Dirección de Salud Pública y Adicciones del Gobierno Vasco información trimestral relativa a la evolución de las intervenciones/talleres** (informe de actividades, informe de asistencia por municipios, centros y cursos/ciclos, y materiales didácticos utilizados), así como comunicar inmediatamente cualquier eventualidad acontecida y que afectara al desarrollo del programa, incluido las altas y bajas de quienes trabajan en la entidad contratada. La **información se emitirá en euskera y castellano.**
• Gainera, programa gainbegiratzeko eta haren jarraipena egiteko, **Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak eskubidea izango du kontratatutako erakundeari edozein motatako informazioa, azterlanak edo datuak eskatzeko**, exekuzioaren jarraipena eta kontrola egin ahal izateko.	• Además, para la supervisión y seguimiento del programa, la **Dirección de Salud Pública y Adicciones se reserva el derecho de solicitar información, estudios o datos** de cualquier naturaleza a la entidad contratada, al objeto de poder realizar la tarea de seguimiento y control de la ejecución.
• **Kontratua gauzatzeko epea amaitzean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboko memoria bat aurkeztea**, kontratatutako zerbitzua betetzeko agiri honetan zehaztutako helburu eta betebeharrei buruzkoa.	• Presentar a la Dirección de Salud Pública y Adicciones del Gobierno Vasco, **a la finalización del plazo de ejecución del contrato, una memoria de evaluación cuantitativa y cualitativa** que haga referencia, a los objetivos y obligaciones especificadas en este Pliego, para el cumplimiento del servicio contratado.
• Kontratua luzatzen bada, ebaluazio orokor bera egingo da ezarritako luzapen-aldia amaitzean.	• En caso de que el contrato sea prorrogado, se realizará la misma evaluación general, a la finalización del periodo establecido de prórroga.
• Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak informazio hori zabaltzea edo osatzea eskatu ahal izango du, emandako zerbitzuaren garapenari edo helburuei buruzko edozein alderdiri buruz.	• Sin perjuicio de que el Gobierno Vasco solicite ampliar o completar dicha información sobre cualquier aspecto relativo al desarrollo u objetivos del servicio prestado.

• **Ikastetxeei tailerrak eskaintzeko, Adikzioen Tokiko Plana duten toki-erakundeetako talde teknikoekin koordinatuko da**. Kontratua gauzatzeko ardura duen zuzendaritzari kontsulta egin ondoren, adikzio-planik garatu ez den toki-erakundeetan, erakunde esleipendunak zuzenean egin ahal izango du prebentzio-programaren eskaintza ikastetxearekin.	• La **oferta de los talleres a los centros escolares se realizará en coordinación con los equipos técnicos de las entidades locales con Plan Local de Adicciones**. Previa consulta a la Dirección responsable de la ejecución del contrato, en aquellas entidades locales donde no se haya desarrollado un Plan de Adicciones, la entidad adjudicataria podrá realizar la oferta del programa de prevención de forma directa con el centro educativo.
• **Tailer horien banaketa EAEko biztanleriaren lurralde historikoaren araberako banaketaren arabera** egingo da.	• El **reparto de estos talleres se hará en proporción a la distribución de la población de la CAPV por Territorio Histórico**.
• Tailerrak abian jartzeko eta garatzeko, **erakunde esleipendunak une oro lan egin beharko du programa ezartzeko interesa duten toki-erakundeetako lan-arlo arduradunekin.**	• Para la puesta en marcha y desarrollo de los talleres, la entidad adjudicataria deberá **trabajar, en todo momento, en colaboración con las áreas de trabajo responsables de las entidades locales** interesadas en implementar el programa.
2.4-KONTRATUAREN BEREZKO JARDUERAK	**2.4-ACTIVIDADES PROPIAS DEL CONTRATO**
2.4.1-PLANGINTZA ETA DISEINU FASEA	**2.4.1- FASE DE PLANIFICACIÓN Y DISEÑO**
• **Erakunde esleipenduna harremanetan jarri beharko da Adikzioen Tokiko Plana duten toki-erakundeetako arduradunekin**. Aurrez, haiekin harremanetan jarri beharko da eskatutako lan-kronograma aurkezteko, kontratazio honen balorazio-irizpideen barruan, aurreikusitako tailerren zerrenda behin betiko itxi eta zehazteko eta programa inplementatzeko.	• **La entidad adjudicataria deberá ponerse en contacto con los y las responsables de las entidades locales con Plan Local de Adicciones**, con quienes previamente contactó para presentar el cronograma de trabajo requerido dentro de los criterios de valoración de esta contratación, al objeto de cerrar y concretar definitivamente la relación de talleres previstos y pasar a implementar el programa.
• **Erakunde esleipenduna ez da zuzenean ikastetxeetara joango, dagokion toki-erakundeko Adikzioen Prebentzio Komunitarioko Arloak aldez aurretik horren berri izan gabe**. Erakunde esleipendunak toki-erakundeetako prebentzio komunitarioko arduradun horien bitartez jardun eta garatuko du programa.	• La entidad adjudicataria **no se dirigirá directamente a los centros educativos sin conocimiento previo del Área de Prevención Comunitaria de las Adicciones de la entidad local de que se trate**. La entidad adjudicataria actuará y desarrollará el programa a través de dichos responsables de prevención comunitaria de las entidades locales.
• **Adikzio-planik garatu ez den toki-erakundeetan, erakunde esleipendunak zuzenean egingo dio prebentzio-programaren eskaintza ikastetxeari.**	• En aquellas **entidades locales donde no se haya desarrollado un Plan de Adicciones, la entidad adjudicataria realizará la oferta del programa de prevención al centro educativo de forma directa.**
• **Erakunde esleipendunak Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta**	

Adikzioen Zuzendaritzari aurkeztu beharko dio garatu asmo dituen esku-hartzeen proposamena, prebentzioko teknikarien eta ikastetxeen eskaerak ezagutu ondoren. Zuzendaritza honek proposamena onartu beharko du.	• La entidad adjudicataria **deberá presentar a la Dirección de Salud Pública y Adicciones del Gobierno Vasco la propuesta de intervenciones** que tiene previsto desarrollar, una vez conocidas las solicitudes de los y las técnicos de prevención y centros escolares. Esta Dirección deberá aprobar la propuesta planteada.
• **Kontratua beste ikasturte batez luzatzen bada, hasi baino gutxienez hilabete lehenago aurkeztu beharko da aurreikusitako esku-hartze plana**, kontratazio honen balorazio-irizpideetan adierazten den bezala.	• En caso de que el **contrato se prorrogue por otro curso escolar** más, deberá, también presentarse, **al menos un mes antes de su inicio, el plan de intervención previsto**, tal y como se señala en los criterios de valoración de esta contratación.
2.4.2- INPLEMENTAZIO- ETA GAUZATZE-FASEA	**2..4.2- FASE DE IMPLEMENTACIÓN Y EJECUCIÓN**
• Parte hartzen duten ikastetxeetan **prestakuntza-tailerrak eta sentsibilizazioa egitea**. • **Tailerretan jorratuko diren gaiak**, gutxienez, honako hauek izango dira: ➢ Edari alkoholdunak eta alkoholemia-mailak ➢ Alkoholaren erabileraren eta abusuaren ondorioak eta arriskuak ➢ Alkohola gehi beste droga batzuk ➢ Gidatzea, alkohola eta beste droga batzuk ➢ Zer dio legeak? ➢ Alkoholaren kontsumoa eta garuna ➢ Autozainketak: gaitasun emozionalak, gatazka-egoerei aurre egiteko trebetasunak, eta konponbideak bilatzea • **Ikasleen autoebaluaziorako galdetegia**.	• Ejecución de **talleres formativos y sensibilización** en los centros educativos participantes. • Los **temas a tratar en los talleres** serán, al menos, los siguientes. ➢ Bebidas alcohólicas y niveles de alcoholemia ➢ Efectos y riesgos del uso y abuso del alcohol ➢ Alcohol más otras drogas ➢ Conducción, alcohol y otras drogas ➢ Qué dice la ley ➢ Consumo de alcohol y cerebro ➢ Autocuidados: Competencias emocionales, habilidades para afrontar situaciones de conflicto, y búsqueda de soluciones • **Cuestionario de autoevaluación del alumnado.**
2.4.3- EBALUAZIO-FASEA	**2.4.3- FASE DE EVALUACIÓN**
• **Tailerren ebaluazio kualitatiboa**, programa ezartzen den tokiko erakundeetako ikasleen, ikastetxeetako arduradunen eta lantaldeen balorazioa kontuan hartuta, eta ikasleen autoebaluaziorako galdetegi bat.	• **Evaluación cualitativa de los talleres**, teniendo en cuenta la valoración del alumnado, de las y los responsables de los centros educativos y de los equipos de trabajo de las entidades locales donde se implemente el programa e incluyéndose un cuestionario de autoevaluación de alumnado.

• **Hiru hilean behin bi txosten egitea** eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzara bidaltzea, dagokion aldiko tailerren datu kuantitatiboak eta kualitatiboak emanez. • **Kontratua amaitzean, behin betiko azken txostena** ere aurkeztuko da.	• **Elaboración y remisión** a la Dirección de Salud Pública y Adicciones **de dos informes trimestrales** aportando datos cuantitativos y cualitativos de los talleres del periodo correspondiente. • A la **finalización del contrato** se presentará además el **informe final definitivo**.
2.5- ERAKUNDE ESLEIPENDUNAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK.	**2.5-OTRAS OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD ADJUDICATARIA**
• **Genero-ikuspegia** sartzea zerbitzuaren diseinuan eta plangintzan, inplementazioan, ebaluazioan eta materialetan. • **Behin zerbitzua esleituta**, kontratatutako profesional-taldeak prest egon beharko du **proiektua hasteko, astebete baino gutxiagoko epean**.	• Incluir la **perspectiva de género** en el diseño y planificación del servicio, y en su implementación, evaluación y materiales. • **Una vez adjudicado el servicio**, el equipo de profesionales contratado deberá estar **disponible para el inicio del proyecto en un plazo inferior a una semana.**

Vitoria-Gasteizen, sinatzen den egunean.
En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma.

GUILLERMO IGNACIO HERRERO ALAÑA - 14254007X

Firmado digitalmente por GUILLERMO IGNACIO HERRERO ALAÑA - 14254007X
Fecha: 2026.03.30 11:43:13 +02'00'

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaria

Director de Salud Pública y Adicciones